

HISPACOOPEK ETA EROSKI-K INDARRAK ELKARTU DITUZTE GALTZEN DEN JANARIA DELA MEDIO ETA KONTSUMO ARDURATSU BATEN ALDE

- **HISPACOOPEk, EROSKIren laguntzarekin, kontsumo arduratsu baten aldeko kanpaina atera du, "Elkartu gurekin kontsumo arduratsuaren alde. Murriztu Berrerabili Birziklatu", kontsumitzailea informatzeko eta kontsumo arduratsua egin dezan kontzientziazeko, hala nola janari gutxiago galtzen utzita, baliabideak berrerabilita eta etxean sortzen diren hondakinak behar bezala birziklatuta**
- **EROSKIren dendetan egingo dute kanpaina, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian, gaur hasi eta azaroaren 30era arte**

Madril, 2017ko urriaren 26a.- [HISPACOOPEk](#), [EROSKI](#)k lagunduta, kanpaina bat abiatu du, honako lelo honekin: «Elkartu gurekin kontsumo arduratsuaren alde. Murriztu Berrerabili Birziklatu». Haren xedea da kontsumitzaileak informatzea, prestatzea eta kontzientziaztea kontsumo arduratsuaren garrantziaz, galtzen den elikagai kopurua gutxituta, baliabideak berrerabilita eta etxean sortzen diren hondakinak behar bezala birziklatuta.

Kanpaina hau finantzatzen ari da Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren bidez, *Hondakinen kudeaketa, galtzen diren hondakinak eta kontsumo arduratsua* proiektuaren barnean. Janaria hobeki kudeatzeko premia dela eta, kontsumitzailea sentsibilizatu nahi du, eta etxean sortzen diren hondakinak murriztea eta birziklatzea.

Gaur hilak 26 hasiko da kanpaina Bilbon, EROSKI-k Gabriel Aresti kalean duen supermerkatuan. EROSKIren beste denda batzuetara ere hedatuko da kanpaina, aldi berean abiarazita Kantabrian, Errioxan, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hala, azaroaren 30era arte, kanpaina martxan den supermerkatuetara joaten direnek erakusmahai bat aurkituko dute, eta doan eskuratu ahalko dute ekimen horren gaineko informazioa eta prestakuntza-materiala.

EROSKI-k konpromiso argia du alferrik hondatzen diren elikagaiekin, 'Ez alferrik galdu' programaren bitartez. Ekimen horrekin, EROSKI-k bermatzen du jateko moduan den elikagairik ez dutela botako bere dendetan, baizik eta beren dendatik hurbil jarduten diren elkartasun-erakundeei emango dietela. Programa horri eskerrak, EROSKI lehen banaketa katea izan zen, 2013an kontsumitzeko moduan dagoen elikagairik ez alferrik galtzea lortu zuena hipermerkatu eta supermerkatu

sare guztian. Urteko lehen seihilekoan dagoeneko, 2.000 tona janari baino gehiago eman du 'Ez alferrik galdu' programaren barnean.

Bestalde, joan deneko 20 urtean, EROSKI Fundazioak EROSKIk gizartearekin duen konpromisoa ordezkatzeko, bizimodu osasungarriari eta elkartasunezkoari balioa eta jakintza ematen dioten ekintzen bidez.

Kooperatibak kontsumo arduratsua sustatzen du zenbait komunikazio kanalen bitartez. Esanguratsuenetako bat EROSKI CONSUMER aldizkaria da. 40 urte baino gehiago daramatza formatu fisikoan kontsumitzaileak informatzen, eta 180.000 aleko tirada bat izaten du hilean; bertsio digitalean, berriz, 200.000 bisitatik gora izaten du egunero. Kontsumitzailea informatzeko argitalpen liderra bihurtu da honako ezaugarri hauei esker: kontsumitzaileei egindako azterketa eta inkestak, erreportajeen izaera praktikoa eta kontsumo arduratsua eta bizimodu osasungarria eramateko aholkuak.

"EROSKI Fundazioaren lehentasun dira kontsumitzaileen sustapena eta defentsa eta, bereziki, kontsumitzaileei emandako prestakuntza eta informazioa. Konbentziturak gaude zinez baliagarria dela haien interesak defendatzeko eta babesteko. Orobat, garrantzitsuak direlako kontsumitzaileek eguneroko kontsumoan hartzen dituzten erabakiak. Hortaz, elikagaiak ez galtzen uztearen sentsibilizatze kanpaina hau, HISPACOOpek sustatua gure lankidetzarekin, bat dator, kontsumo-kooperatiba garen aldetik, prestakuntza eta informazioa emateko dugun zereginarekin", esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Kanpaina hau zein supermerkatutan izango den jakiteko, kontsultatu webgune hau: www.hispacoop.org/desperdicios

HISPACOOpi buruz

Kontsumitzaile eta Erabiltzaile Kooperatiben Espainiako Konfederazioa da HISPACOO, eta, guztira, 176 kontsumitzaile-kooperatiba biltzen eta koordinatzen ditu Espainia osoan, zeinek aldi berean 5.059.424 kontsumitzaile bazkide ordezkatzeko baitituzte. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarerik esanguratsuenetako bat da Espainian, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kontseiluaren parte da.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.784 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, hor ditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horrez gain, gasolindegia, bidaiak bulegoak, lurrindegia eta kirol ekipamendurako dendak. Zazpi milioi bezero-bazkide baino gehiago ditu, eta 32.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkidetik gora.

<p>EROSKI</p> <p>Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernandez, Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es</p> <p>Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642</p>	<p>KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILE KOOPERATIBEN ESPAINIAKO FEDERAZIOA (HISPACOO)</p> <p>hispacoop@hispacoop.es Tel. 915 930 935 www.hispacoop.es</p>
--	---

